

Hizkuntza mina, hiztunaren gaitza

Ertzainak euskaraz ez daki. Politikariak ez daki. Dendariak ez daki. Mekanikariak ez daki. Saltzaileak ez daki... Are okerrago, ez dago ikasiko duten itxurarik. PSOEren hauteskunde kanpainaren leloetako bat, gaztelaniatik euskarara itzulia, hautesleari zuzendua: "Zu garrantzitsua zara". Benetan? Baita euskaraz (ere) bizi nahi badut ere?

MIEL A. ELUSTONDO

Marrakia: Eli Gurrutxaga

"EUSKARAZ EGIN, ARREN", "Euskaraz eta kito!", "Bai euskarari", "Euskaraz guztiona da"... besterik ez bada ere, esloganez ondo horniturik gabilta euskaldunok; alegia, beren hizkuntza gutxitua arriskuan ikusten duten komunitate guztietako hiztunen min bera dugu. Horretan gure orroa inoren parekoa da. Unibertsala da hori. Aldez edo moldez kantatu dute beren baitako etsia munduan herri natiboek, indigenek, aborigenek. Eta zer da euskalduna, natibo, indigena eta aborigen besterik, hizkuntzaren egoerak sufriarazten duena...

Jakina da askok ez duela min hori bizi baina egia ere bada, aldi berean, askok bat egiten duela, nola-bait ere, hurkoaren zauriaren aurrean. Egiaren ifrentzua da, aldiz, beste hainbatek Pilatorena egin nahiago duela, edota, trikuarena ("ostrukarena" gaurko euskaradunon estandar motzean).

Joxean Artze arrazoi emaille: "Hizkuntza bat ez da galtzen / ez dakitenez ikasten ez dutelako, / dakitenez hitz egiten ez dutelako baizik".

Jakin ez

Egoerak askorengan eragiten duen larria ez da badaezpadakoa, guztiz ziurra baizik: arazo emozionalak, sozialak eta fisikoak ere ekar litzake. Atso-agureak beren hizkuntzan mintzatzerik ez, beren kolkokoak adierazi nahi eta ezinean balizko medikuak ulertzen ere ez duelako. Gizon-ema-kume larriak beren hizkuntza baliatu nahi eta ezinean, pareko ertzain edo udaltzainak ez dakielako eta, are, inor hari euskaraz zuzentzea iraintzat har lezakeelakoan. "Euskaraz bizi nahi dut" esanez bizi dena, itotzeko zorian da edo babesgunera, indioaren erreserbara bizitzera joatera beharturik.

Euskararen egoera halakoxea delako, bere etxean ere!, beste non edo

nongo hizkuntza nagusiak atariko haizea baino lasaia gogabiltzanean inoren ama lurrean.

Hizkuntzaren egoera politiko ahularen ondoriozko bizipenak. Hizkuntza ordezkatzak

ekarri dituen minak.

Diote historia oso dela latza, krudela, hizkuntza txikien kasuan, burujabetasuna galdu duten herrietan. Heriotzak -hiz-



kuntzaren heriotzak, eman dezagun—, gaitza eragiten du inoren organismoan; zinez gaitz biziagoa erabateko kontzientzia dugunean.

Sentipen eta pentsamendu korapilo mordoak ito beharrean dauka hainbat jende. Inork ez daki zer diren edo nola deskribatu, zuzen. Errealitate eta pentsamendu bakarraren erreinuan, badira beste errealitate eta pentsamendu batzuk. Milaka aurpegidun dira haiek.

Hizkuntza minez gaixo bizi da hamaika euskaldun. Eta zenbat dira? Eta zenbat dira euskaltzaleak? Zenbat hizkuntzaren aldeko militanteak? Katalunian, hasteko, %2 eta %5 artean omen. Aintzakotzat hartzeko moduko datua al da? Ez, politikariaren arabera: bazterrekoa da arazoa, ez du ekintza ez ekinbidea justifikatzen. Aitzitik, kontuan hartu beharrekoa da gaitza bizi duenarentzat: “Kasu bakar batek nobela on bat justifikatzen duen bezala, kasu hura orokortu eta unibertsal bihurtzeko modukoa denean”. Gabriel Aresti arrazoi email: “Nik ere badut nire egia / eta bankero jaunarenak / bezainbat edo gehiago / balio du”.

Hitz egin nahi ez

Egoeraren funtsa euskara bizitza publikotik desagertu izana da. Zergatik ez dute hogeita bost urte honetan euskara(z) ikasi duten gazteek —eta gazte izateari utzi diotenek—, euskaraz hitz egiten? Inondik ere, barru-barruraino irentsi dutelako gizarteak helarazi dien mezua: sinboloa baino ez da euskara; ondorioz, harro erakusteko balio du, inor txuliatzeko, negarra eta protesta jotzeko.

Ondo kontatzen du J.S. Sesma irakasleak *Euskara biztun ez izatea erabaki zuten euskara biztunak* idazlanean (www.indymedia.euskalerrria.org). 2001eko udaberria behar zuen, Nafarroako zonalde mistoan, DBHko institutu batean, D erudian. Ikasleek batzarra egiteko tartea eskatu diote

Gizarteak gazteei helarazi dien mezu agerikoa eta subliminala: sinboloa baino ez da euskara, paparrean daramagun intsigniaren balioa du

irakasleari, gobernuaren foru dekretu berri bat aitzakia. Dekretuak euskararen erabilera are gehiago murriztu nahi du Nafarroako administrazio publikoetan. Ikasleak D erudian hazi eta heziak dira hiru urte zituztenetik. Egin dute batzarra, gaztelania hutsez. Amaieran, kontraesanaz jabetzen ote diren galdetu die irakasleak, zergatik ez duten hitz bat bera ere egin euskaraz batzarrean, zergatik ez duten hitz

Alferrik da legea, betetzen ez denean. Alferrik euskaldun saiatuaren ekintza: zenbat eta zenbat herri aldizkari euskaraz! zenbat eta zenbat... Zenbat eta zenbat idazten den, eta zein gutxi hitz egiten...

bat bera ere egiten euskaraz egunean. J.S. Sesmak dioskunez, ikasleek kanpo arrazoiak dituzte beti argudio: historia, sistema, espainiar gobernu, globalizazioa edota Albako dukea.

Gizarteak gazteei helarazi dien mezu agerikoa eta subliminala: sinboloa baino ez da euskara, paparrean daramagun intsigniaren balioa du, Herri Urratsera edo Durangoko azokara joatea da inportantea. Bitoriano Gandiaga arrazoi email: “Hemen / euskaraz ez dakienak / berak jakingo du / zergatik ez dakien. / Baina hemen / euskaraz ez dakienak / ez

digu uzten / euskaraz egiten. / Baina eta hemen / euskaraz jakin arren / euskaraz mintzatzen / ez denak ere / ez digu uzten / euskaraz egiten”.

Minez

Euskaraz ez dakienak ez digu uzten euskaraz egiten. Euskaraz jakin arren euskaraz mintzatzen ez denak ere ez digu uzten euskaraz egiten. Biek naturaltasun osoz euskaraz bizi ahal izatea galarazten digute.

Alferrik da legea, betetzen ez denean. Alferrik euskaldun saiatuaren ekintza: zenbat eta zenbat herri aldizkari euskaraz!, zenbat eta zenbat liburu eta argitalpen!, zenbat eta zenbat... eta zein gutxi kontsumitzen den euskarazko produktua! Zenbat eta zenbat idazten den, eta zein gutxi hitz egiten... Agiri eta inprimakiak euskaraz eta gaztelaniaz. Berorien erabilera, gaztelaniaz. Irrati-telebistetan, erdaraz erdalduna, erdaraz euskalduna. Euskara ezkutatu, gorde eta desagerarrazia. Lehenetsia da beti erdara. Bigarren mailakoa da euskara. Bigarren mailakoa euskaldun elebiduna.

Elebitasunak euskaldunen benetako elebitasuna esan nahi du; gaztelania hiztunek hizkuntza bakar batekin bizitzen segitzen dute. Inposizioa? Aspaldi esan zuen Aracil zaharrak: “Katalan hiztunek nahiko indar ez baldin badute Katalunian bizi diren guztiei katalana inposatzeko eta, aldiz, gaztelania hiztunei katalanez hitz egiten ikasteko besterik eskatzen ez baldin badiete, orduan gaztelania hiztunek usteko dute katalana inposatu nahi dietela”.

XXI. mendean, beren hizkuntzak biziarazteko asmotan, direnak eta ez direnak egiten dituzten hizkuntza komunitateek besterik ez dute lortuko helburua.

Bitartean, hizkuntzagatiko minez euskalduna, bizitza betea galarazten dioten arazo eta ezin emozional, sozial eta fisiko artean, sendagilerik gabe. ■

Babeslea: Bergarako Udala

